SURBISAko Presidentearen erabakia, 2023.02.28koa, zeinen bidez Bilbon etxebizitzak eraberritzeko HELDUAK RENOVE ETXEBIZITZA 2023 programaren diru-laguntzen deialdia egiten baita.

Surbisako Administrazio Kontseiluak 2023ko otsailaren 6an Bilboko egoitza eraikinak birgaitu eta hobetzeko diru-laguntzak emateari buruz onetsitako Oinarri Arautzaileekin bat eginez, eta Kontseiluaren saio horretan, dagokion deialdia formalizatzeko xedez, Presidenteari emandako eskumenak egikarituz, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Bilbon etxebizitzak eraberritzeko HELDUAK RENOVE ETXEBIZITZA 2023 programaren Oinarri Arautzaileetan jasotako diru-laguntzak emateko 2023ko Deialdi Publikoa ONESTEA, edukia honako hau delarik:

1.- Xedea.-

Oinarri hauen xedea da Hiri Berroneratzearen Sailak, Surbisaren bitartez, Bilboko udalerrian bizi diren 60 urtetik gorako pertsonei edo mugikortasuna murriztua duten edo zentzumenezko ezgaitasuna duten pertsonei euren etxebizitzetan egokitzapen obrak eta instalazioak jartzen laguntzeko onetsi eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen prozedura, betekizunak eta baldintzak arautzea. Zehazki esateko, iriste erraztasun baldintzak hobetzeko, baztertzea saihesteko, arkitekturazko oztopoak kentzeko eta zentzumenezko ezgaitasuna duten pertsonen beharrizanetara egokitzeko obrak eta instalazioak sartzen dira laguntza horien xedeen artean.

2.- Onuradunak.-

Oinarri hauetan araututako lanak egiteko laguntzen onuradun izan daitezke 60 urtetik gorako pertsonaren bat (eskaria aurkezteko unean 60 urteak beteta izan behar ditu) edo % 30eko ezgaitasun gradua edo handiagoa aitortua eta indarrean duen pertsonaren bat (mugikortasun murriztuaren gradu positiboa edo zentzumenezko ezgaitasuna duena) bizi deneko etxebizitza baten jabe diren pertsona fisikoak; baldin eta ikusmenezko ezgaitasuna bada, % 65ekoa edo handiagoa izan beharko du ezgaitasun graduak. Gainera, laguntzen onuradun izan daitezke 60 urtetik gorako egoiliarrak berak edo aipatutako ezgaitasun-gradua egiaztatzen dutenak, beti ere etxebizitzan bizitzeko titulu juridiko baliozkoa baldin badute.

Etxebizitzako egoiliartzat hartuko dira bertan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik erroldatutakoak.

Hori guztia hirugarren oinarriarekin bat etorriz.

3.- Oinarri Arautzaileak.

Surbisako Administrazio Kontseiluak 2023ko otsailaren 6an eginiko saioan onetsitakoak dira eta 2023ko otsailaren 16eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, nahiz Surbisaren web-ean, argitaratuta daude.

4.- Aurrekontu kreditua.

Deialdi honen guztizko zenbatekoa 150.000,00€-koa da, eta 22023 22000 15140 7330220 aurrekontu partidaren kargurakoa da.

5.- Zenbatekoak.-

Diru-laguntza, itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izango dena, kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriari % 30eko portzentajea aplikatuko zaio, eta gehienez MILA ETA ZORTZIEHUN eurora (1.800€) iritsiko da.

6.- Aurkezteko lekua.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen eskaerak honela aurkeztu ahalko dira:

- Surbisak Erronda kaleko 6.ean dituen bulegoetara bertaratuta. Horretarako, aurretiazko hitzordua eskatu beharko da mayores2023@surb.bilbao.eus helbidera idatzita edo 628-90.01.81 telefono-zenbakira deituta.

- Edo mezu elektronikoz, mayores2023@surb.bilbao.eus helbidean.

7.- Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezteko epea.

Laguntzak eskatzeko eskariak aurkezteko epea Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zabalduko da eta zabalik iraungo du harik-eta aurrekontu gordailua agortzen den arte eta 2023ko azaroaren 30era arte, hau barruan hartuta, edo luzatutako egunera arte.

“Erantzukizunpeko aitorpena” ere jasotzen duen eta behar bezala sinatuta dagoen eskari-orriarekin batera, 8.3 Oinarri arautzailean adierazitako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

8.- Jarduketen denbora-eremua.-

Obra lizentzia 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso eta data horren ostean egikaritzen diren obretarako laguntzak eskatu ahalko dira.

Laguntza eskaera behin obren egikaritzea amaitutakoan aurkeztuko da. Obren egikaritzea amaitu dela aitortzeko, fakturaren igortze egunari begiratuko zaio, eta burututako obraren argazkiarekin batera aurkeztuko da faktura hori.

9.- Emate-prozedura, honen epeak, esku-hartzen duten organoak, baliabideak eta kontuan hartu beharreko gainerako betekizunak Oinarri Arautzaileetan jasotakoak dira**.**

BIGARRENA.- Deialdi hau argitara dadila Diru Laguntzen Estatuko Datu Basean, ondoren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) eta Surbisaren web-orrian argitaratzeko.

Bilbon, 2023ko otsailaren 28an.

SURBISAKO kontseiluburu eraginkorra, Iván Calderón Fuente

IVAN CALDERON FUENTE - 30677896J

Firmado digitalmente por IVAN CALDERON FUENTE - 30677896J
Fecha: 2023.03.02 13:44:58 +01'00'

Bilbao SURBISA

ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA-ORRIA/SOLICITUD DE AYUDAS PARA REFORMAR LA VIVIENDA

HELDUAK MAYORES
RENOVE VIVIENDA 2023

1.- ESKATZAILEAREAN DATUAK / DATOS PERSONALES DEL O LA SOLICITANTE

NAN DNI	Adina Edad	Sexua / Sexo G / H ☐ E / M ☐
Izen-Deiturak Nombre y apellidos		
Eskatzailea birgaituko den etxearen jabe da? ¿Es Ud. Propietaria o copropietaria de la vivienda?		Bai/Sí ☐ Ez/No ☐
60 urtetik gorako inor bizi da birgaituko den etxebizitzan? ¿Reside alguna persona mayor de 60 años en la vivienda a reformar?		Bai/Sí ☐ Ez/No ☐
Desgaitasunik duen inor bizi da birgaituko den etxebizitzan? ¿Reside alguna persona con discapacidad en la vivienda a reformar?		Bai/Sí ☐ Ez/No ☐

Harremanetan jartzeko helbide eta posta elektronikoa / Domicilio y mail a efectos de notificación

Helbidea (kalea, zenb, solairua, eskua) Dirección (calle, nº, piso, mano)	Udalerria PK Municipio CP
Telefono mugikorra Teléfono móvil	Posta elektronikoa Correo electrónico

2.- BIRGAITU BEHAR DEN ETXEBIZITZAREN DATUAK / DATOS DE LOCALIZACIÓN DE LA VIVIENDA A REHABILITAR

Helbidea (kalea, zenb, solairua, eskua) Dirección (calle, nº, piso, mano)	PK CP	OHG Zenb Nº fijo IBI

3.- EGIN DIREN OBREN DESKRIBAPENA ETA KOSTUA / DESCRIPCIÓN Y COSTO DE LAS OBRAS REALIZADAS

Obren deskribapena aurkeztutako fakturaren arabera / Descripción de las obras según la factura que se adjunta
Obren kostua guztira, BEZa Barne / Total costo de las obras con IVA _____ €
Birgaitze lanak egiteko obra lizentzia eskatu duzu edota aurretiazko komunikazioa aurkeztu duzu? ¿Ha solicitado Ud. licencia de obras para la reforma o ha presentado comunicación previa de las obras a realizar? Bai/Sí ☐ Ez, ez da beharrezkoa/No, no hace falta ☐

4.- BESTE BATZUK LAGUNTZAK ESKATU DITU / HA SOLICITADO OTRAS AYUDAS

Ez/No ☐ Bai/Sí ☐	ZEINTZUK CUÁLES

Baimena ematen diot SURBISAri erakunde eskudunei behar diren datuak eskatzeko, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurrien onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko. Era berean, baimena ematen dizuet eskaera honen datuak beste administrazio publiko batzuei, zuzenbide publikoko erakunde publiko eta pribatuei eta etxebizitza-arloan eskumena duten sozietate publikoei jakinarazteko, bai eta babes publikoko etxebizitzak sustatzen dituzten erakunde pribatuei ere, helburu estatistikoak badituzte, etxebizitza erosteko edo birgaitzeko finantza-laguntzak emateko, edo etxebizitzak esleitzeko. Zure datuen lagapen-hartzaileen zerrenda SURBISAn eska dezakezu, Ronda Kalea, 6, 48005 Bilbao. Helbide honetan erabil ditzakezu eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak.	Autorizo a SURBISA a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para verificar el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ser beneficiario/a de las medidas financieras para la rehabilitación de vivienda. Igualmente les autorizo a comunicar los datos de esta solicitud a otras Administraciones Públicas, Entes Públicos de Derecho Público y Privado, y Sociedades Públicas, todos competentes en materia de vivienda, así como a entidades privadas promotoras de viviendas de protección pública, con fines estadísticos, para la concesión de ayudas financieras en materia de compra de vivienda o rehabilitación, o con la finalidad de proceder a la adjudicación de viviendas. Puedes solicitar la relación de los concretos concesionarios de tus datos en SURBISA, calle Ronda 6, 48005 Bilbao. En esta misma dirección puedes ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición.
Ematen nahiz baimentzen dituzun datuak 213280394 izeneko fitxategian ere sartuko dira, Surbisaren jabetzapeko “Eraikinen birgaitzea eta diru-laguntza” izenekoan hain zuzen. Onartzen duzu eskatzen diren helburuetarako erabiliko direla. Hona helburu horiek: etxebizitza erosi edo birgaitzeko finantza-laguntzak eskatzen dituztenei etxebizitza lortzen gardentasunez laguntzea.	Los datos que aportas así como los que autorizas obtener serán incluidos en el fichero 213280394 denominado “Rehabilitación de Edificios y Subvenciones” propiedad de Surbisa. Consientes su tratamiento en base a los fines para los que se recaban; los cuales son facilitar, de manera transparente, el acceso a la vivienda a las personas solicitantes de ayudas financieras en materia de compra o de rehabilitación.
Hau sinatzen duenak adierazten du eskaeran bete dituen datu guztiak egiazkoak direla eta, hortaz, birgaitzeari emandako laguntzen espedientearen parte izatea eskatzen du, gai hau erregulatzen duten arauen eta bertan ezartzen diren baldintzen babesean. Era berean, adierazi nahi dut badakidala zein diren eta onartzen ditudala adierazitakoa ez betetzetik erator daitezkeen baldintzak.	Quien suscribe manifiesta ser ciertos los datos consignados en la solicitud y solicita formar parte del expediente de ayudas a la rehabilitación al amparo de las normas que regulan la materia y en las condiciones que allí se establezcan. Manifiesto asimismo que conozco y acepto las condiciones que pueden derivarse del incumplimiento de lo manifestado.

ADIERAZPENA / DECLARA

Ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez duela horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluaren 5. zenbakian xedatutakoaren arabera. Ez nago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako ezein egoeratan.	Que no está sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 50 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. Que no se halla incursa en ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 13 dela Ley38/2003, de 17 de noviembre, General Subvenciones.

☐ **Irakurri dut eta baldintzak onartzen ditut**
He leído y acepto las condiciones

Sinadura / Firma

.....